

SORGINAK TXERRI BIHURTUTA

Anton Erkorekak Bermeon bildutako kondaira zaharra

Sorginek txerri itxura hartzen ei dute. Antzina entzuten zen andrazkoak zerbait edan edo jan ostean, *iditxu*¹ itxura hartuta, lapurtzera edota beste zerbait egitera joaten zirela ortuetara (hirigunearen ingurukoetara).

Eta gero berriro ere, iditxu horiek kristau, gizonezko, andrazko edo lehenago zuten itxura hartzen zuten.

Hainbeste minutuz edo orduz lanean aritu ostean ostera ere hartzen zuten gizaki itxura.

Lehen Almikera joateko bidexka eta soroak egoten ziren, eta hortik (*Erreñazubitik*) egoten zen soro baten andre lodi-lodi-lodi bat. Juana (*Pusikeronekue*) izena zuela badakit, eta animalia itxura hartzen zuen. Lapurretan ibiltzen ei zen soroetan. Eta bere etxea beti zuen ortuariaz beteta. Gero, bere gauzak eginda, betiko moduan jartzen ei zen.

(1) Iditxu edo Ireltxu animalia itxura hartzen duen jeinua.

Anton Erkoreka

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000